



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO



Gizarte Hezkuntza

2. MODULUAREN GIDA

HEZKUNTZA LANBIDEAK



2024-2025

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
MODULULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK	3
2. MODULUAREN EGITURA	5
MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ).....	6
METODOLOGIA: ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKETA (AOI/PBL).....	7
ZER URRATS EMANGO DITUGU IKASKETA PROZESU HONETAN?	7
MDJREN KRONOGRAMA	8
MDJREN EBALUAZIOA (PROZESUA, ADIERAZLEAK, IRIZPIDEAK ETA NOTA)	9
IRAKASGAIEN ZERRENDA: BAKOITZAREN KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EDUKIAK.....	12
WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK.....	16

AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako Graduko II. moduluak honako galderari erantzuten dio: **nortzuk** dira, eta nola bizi dute beren lanbidea hezkuntzako profesionalek? Hori guztia, betiere, erakundeen arteko ikuspegitik abiatuta; izan ere, jakingo duzueenez, modulu hau komuna da Pedagogiakotitulazioarekin.

Hemen aurkezten dizuegun eta bigarren lauhilekoan garatuko den lan-proposamenaren helburua da hezkuntzako profesionalek (irakasleak, pedagogoak eta gizarte-hezitzaileak) zer egiten duten eta beren lanbidea nola garatzen duten ezagutzea eta hobeto ulertzea.

Zentzu horretan, lanbide honek baditu ardatz garrantzitsuak osatzen dituzten zenbait euskarri: giza eskubideen erreferentea, deontologia profesionala eta europar konbergentziatik datorren nazioarteko izaera. Arrazoiketa, komunikazio eta hezkuntza-harremanetatik abiatzen diren hezkuntza-oinarriak ere elementu funtsezkoak dira hezkuntza-praktikan, eta jarrera kritikoa esanguratsua definitzen dute lanbidea garatzeko orduan.

Modulu honetako gaitasun orokor nahiz zeharkakoen domeinua, arrazonamendu hezitzaileen eraketan garatzen da orientazio kritikotik abiatuta. Hau guztia, arazo errealei buruzko txosten batean islatuko da eta txosten hori ahoz aurkeztuko da (Moduluko Diziplina arteko Jarduera – MDJ).

MODULULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK

Gaitasunak honakoa esan nahi du: “Bizitza profesional eta/edo pertsonaleko arazo edota egoerei konponbidea bilatzeko zenbait egitura kognitibo, intelektual eta emozional mugiarazten dituen ikasketa zehatz bezain konplexua”. Ikasketa-emaitez adierazten dute gaitasun horien lorpen-maila.

Honakoak dira moduluan lortu beharreko gaitasunak eta ikasketa-emaitez:

1. Taula. Moduluarekin lotutako iraunkortasunerako ikaskuntzako gaitasunak eta helburuak

GAITASUNAK	IKASKETA EMAITZAK
2C1. Hezkuntza arloko profesionalen jarduera-eremu desberdinetako gizarte eta hezkuntzako ekintzak interpretatzeko orduan argudio hezigarriak lantzea (teoria pedagogikoetan eta esku-hartzeari buruzko manuetan oinarritutakoak). (CG1 eta CG6)	<ul style="list-style-type: none">• Unean uneko egoera nahiz arazoei ondo arrazoitutako erantzun hezigarria eraikitzea.

<p>2C2. Hezitzailearen oinarrizko ezaugarriak hezkuntza arloko lanbideekin eta lanbide horiek egun duten garapenarekin erlazionatzea. (CG1)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Hezkuntza arloko lanbide desberdinetako identitate profesionala eraikitzeke ahalbideratzen duten elementuak zehaztea. <input type="checkbox"/> Hezkuntza arloko lanbideak eta lanbide horien praktika profesionala kasuan kasuko testuinguruan kokatzea.
<p>2C3. Giza eskubideekin, genero-ikuspegiarekin eta erantzukizun profesionalarekin lotutako printzipio etiko eta deontologikoetan oinarritutako hezkuntza-irizkiak sortzea. (CG2, CG5*, CG6)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Kasu sinpleen azterketa sistematikoki ebatzea, modu etiko eta deontologikoan, eta genero-ikuspegia barne hartuz. <input type="checkbox"/> Hezkuntzako lanbide bakoitzari espezifikoki eragiten dieten esparru arauemaile zehatzak identifikatzea.
<p>2C4. Komunikazioaren oinarrizko elementuak identifikatzea eta maneiatzea, taldekako testuinguruetan, hezkuntza-harreman egokia ezartzeko, eta norberaren, taldearen nahiz lanbidearen garapenerako eraginkorrak izango diren komunikazio-estrategiak ikasteko. (CG3, CG1, CG8*)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza arloko lanak aurkezteko orduan eta prestakuntzaren prozesu interaktiboan komunikazio-harremanaren oinarrizko ezaugarriak erabiltzea.
<p>2C5. Ideiak adieraztea (gertaerak eta irizkiak desberdindu behar dira) era antolatu batetan, komunikazioaren printzipioak eta osagaiak erabiliz, publikoarekin elkarrekintza egokia lortzeko. (CG8*)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Moduluan landutako gai ei buruzko pentsamendu eta ideiak gainerako taldekideei ahoz komunikatzea, baliabide didaktiko egokiak erabiliz.
<p>2C6. Idatzizko dokumentuak egitea, teoria zientifiko hezitzaileetan oinarrituta dauden ideiak aipatuz eta egitura eta forma aldetik, idazkera akademikoaren arauak jarraituz. (CG9*)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasgaiko gai garrantzitsuenei buruzko testu zientifikoetan oinarritutako laburpenak aurkeztea, idatziz.
<p>2C7. Ikasketarekin lotutako jarduera eta egitekoei dagokienez, jarrera aktibo eta erantzulea erakustea. (CG10*)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Datuen (zientifikoak, legeriazkoak, landa lanekoak ...) bilaketa egitea iturri egokietan eta analisirako informazioa aukeratzea. • Gela-taldeko dinamikan modu eraikitzailean eta konpromisoz parte hartzea.
<p>2C8. Taldea lanean zentratzea, lanerako denbora erregulatzea eta atazara mugatzea. (CG4, CG5, CG10*)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Taldea lanean zentratzearen, lanerako denbora erregulatzearen eta atazara mugatzearen inguruan bizi izandako prozesuaren esperientzia pertsonala eta taldekoa azaltzen duen kontaketa idatzia egitea.

2015eko irailean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen. Agenda hori Garapen Iraunkorreko 17 helburutan (GIH) eta 169 jomugatan zehazten da 2030. urterako. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), beste erakunde batzuek

bezala, bat egiten du planteamendu horrekin, unibertsitatearen lana planetaren eta pertsonen erronka handiekin lerrokatu nahi baitu, "inor atzean utzi gabe" (UPV/EHU, 2017).

Helburu horiek lortzen lagunduko duen Iraunkortasunerako Hezkuntza txertatzen laguntzeko, hezkuntzan espezializatutako Nazio Batuen erakunde gisa, UNESCOk zeharkako gaitasunak eta ikaskuntza-helburuak identifikatzen ditu GJH bakoitzerako. Zehazki, modulu honetako lana 2. taulan jasotakoekin lerrokatuko litzateke.

2. Taula. Moduluarekin lotutako iraunkortasunerako ikaskuntzako gaitasunak eta helburuak (UNESCO, 2017)

IRAUNKORTASUNERAKO FUNTSEZKO ZEHARKAKO GAITASUNAK	
Pentsamendu sistemikoaren gaitasuna	Trebetasunak harremanak ezagutzeko eta ulertzeko; sistema konplexuak aztertzeko; sistemak domeinu eta eskala desberdinetan nola integratuta dauden pentsatzeko; eta ziurgabetasunari aurre egiteko.
Kolaborazio gaitasuna	Trebetasunak beste pertsona batzuegandik ikasteko; beste pertsona batzuen beharrak, ikuspegiak eta ekintzak ulertzeko eta errespetatzeko (enpatia); ulertzeko, identifikatzeko eta beste pertsona batzuekiko sentikorak izateko (lidergo enpatikoa); talde-gatazkei heltzeko; eta arazoak lankidetzan eta parte-hartzean konpontzea errazteko.
Pentsamendu kritikoaren gaitasuna	Arauk, praktikak eta iritziak zalantzan jartzeko trebetasuna; norberaren balioei, pertzepzioei eta ekintzei buruz hausnartzeko trebetasuna; eta iraunkortasunaren diskurtsoan jarrera bat hartzeko trebetasuna
GIH 4-rako (Kalitatezko hezkuntza) IKASKETA HELBURUAK	
Ikasketa helburu kognitiboak	1. Ulertzen du bizitza osoan zehar hezteko eta ikasteko aukerek pertsona guztientzat duten rol garrantzitsua (ikaskuntza formala, ez-formala eta informala), pertsonen bizitza hobetzeko eta GIHak lortzeko. 3. Badaki hezkuntza eskuratzeko eta lortzeko dauden desberdintasunei buruz, bai eta kalitatezko hezkuntzarako eta bizialdi osoko ikaskuntza lortzeko aukeren ekitate ezari buruz ere.
Ikasketa helburu sozioemotionala	3. Gai da hezkuntzaren berezko balioa aitortzeko, eta bere garapen pertsonalerako ikaskuntza-beharrak aztertu eta identifikatzeko.
GIH 10-erako 10 (ezberdintasunen murrizketa) IKASKETA HELBURUAK	
Ikasketa helburu kognitiboa	1. Ezagutzen ditu desberdintasunaren dimentsioak (zehazki, eskola-porrotarena), horien arteko erlazioak eta aplikatu daitezkeen estatistikak.
Ikasketa helburu sozioemotionala	4. Jabetzen da bere inguruko eta munduko desberdintasunez (hainbat hezkuntza-testuingurutan), eta gai da horien ondorio problematikoak aitortzeko.
Ikasketa helburu konduktuala	3. Gai da desberdintasunen (zehazki, hezkuntza-porrotaren) kausak eta arrazoiak identifikatzeko eta aztertzeko.

2. MODULUAREN EGITURA

Moduluaren egiturak barne hartzen du, arestian aipatutako bost irakasgai horien garapena, eta MDJ (Moduluaren Diziplina arteko Jarduera), ondorengo grafikoan adierazten den bezala.



MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)

MDJ horren helburua da, ikasleak arrazonamendu hezitzailea eraikitzeke baliatuko duen prozesua garatzea. Arrazonamendu hori orientazio kritiko batetik abiatu ostean, azkenean, txosten bat egingo da, gero jendaurrean aurkezteko. Lantaldean egindako txosten hori hezkuntza arloko egoera eta arazo errealetan oinarritutakoa izango da. Taldeak gehienez 4 pertsonakoak izango dira eta horiek ausaz aukeratuak izango dira ikasturte hasieran.

Arazo horiek lanbideko esku-hartzearekin zuzenean lotutako ohiko egoerei buruzkoak dira; horien aurrean, ikasleek, erabakiak hartu eta erantzun arrazoituak eman beharko dituzte, hezkuntzako planteamenduetatik abiatuta.

MDJ hori mintegi bidez garatuko da; mintegi bakoitzean 15 ikasle egongo dira gehienez. Horrez gain, irakasgai bakoitzeko irakasle bat egongo da, irakaskuntza- ikasketa prozesuaren ardura edukiko duena. MDJ egiten duten talde bakoitzean lauzpabost ikasle egongo dira.

MDJ derrigorrez egin beharrekoa da, eta 5 ECTSeko (125 ordu) balioa izango du. 15 astetan zehar garatuko da. Irakaskuntzako egitura du eta, bertan, tutoretza-saioak eta ikaslearen lan autonomia uztartzen dira.

Ikasturteko lehen astean, modulua eta irakasgaien laneko eta MDJren proposamena aurkeztuko ditu. Halaber, AOIren aurkezpen metodologikoetan sakonduko da eta MDJan jarraitzeko metodologia hitzartuko da. Gainera, aste honetan zehar arazoa jakinaraziko da eta MDJ-talde bakoitza bere tutorearekin lantzen hasiko da

Metodologia: arazoetan oinarritutako ikasketa (AOI/PBL)

Modulu honetan garatzen den metodologiak irakasgai desberdinen edukien integratzea du abiapuntu; zentzu horretan, *kasu zehatzen bidezko egoera desberdinen ikaskuntza* baliatzen du, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragile guztiak barne hartzen dituelarik, modu kooperatiboan.

Modulu honetan zehaztutako gaitasunak eskuratzeko, mintegia osatuko duen ikasle-taldea irakaslearekin bildu, eta aurretiaz aukeratu nahiz diseinaturiko arazoa aztertu eta konponduko dute.

Arazo horiek eguneroko bizitzarekin zerikusia dute, eta ikasleek egin beharrekoa zera da: nahitaezkoak diren suposizioak zeintzuk diren definitzea, eta zergatik; zein informazio den garrantzitsua zehaztea, eta zergatik; eta arazoa konpontzeko zeintzuk diren eman beharreko pausu edota prozedurak.



Ikasleek, prozesu horretan, zenbait pausu edo etapa jorratuko dituzte: arazoa identifikatzea, prestakuntza-beharrizanak detektatzea, lan-egitasmoa prestatzea, erabakiak hartzea eta, azkenik, arazoa ebaztea. Arazo jakin baten aurrean konponbide bat baino gehiago egon daiteke; horregatik, konponbide bakarra aztertzea baino, puntu horretara iristeko prozesuak egin duen ibilbidea analizatzea da garrantzitsuena.

Zer urrats emango ditugu ikasketa prozesu honetan?

HASIERAKO EZTABAIDA

- 1) *Arazoarekin zerikusia duten terminoak eta kontzeptuak ulertzea eta argitzea.*
 - a) Arazoa barne hartzen duen testuingurua banaka irakurtzea eta aztertzea.
 - b) Gainditu beharreko egoera modu orokorrean ulertzea eragozten diguten hutsuneak, kontzeptuak eta terminoak zehaztea eta taldean eztabaidatzea.
 - c) Aipatutako alderdi guztiak idatziz erregistratzea (zalantzak, argudioak, terminoak, etab.).
- 2) *Arazoaren muina identifikatzea eta definitzea, eta galderak egitea.*
 - a) Ikasleak arazoaren inguruan dituen lehen iritziak bakarkaazaleratzea.
 - b) Taldeari jakinaraztea.
 - c) Arazoaren deskribapen txiki bat egitea; bertan, taldeak konpondu nahi duena diagnostikatu beharkodu.
- 3) *Dagoeneko ezagutzen dituzten gaiari buruzko alderdi teorikoen eta esperientzian oinarritutakoen zerrenda bat egitea.* Hainbat taldekideren artean, taldeak dituen informazioa, ahalmenak eta prozedurak zehaztea.
- 4) *Arazoa konpontzeko ikasi beharrekoen zerrenda bat egitea.*
 - a) Arazoakonpontzekojakinbeharrekoari buruzko galderak egitea.
 - b) Aztertu beharreko alderdi kontzeptualak edo beste era batekoak.
- 5) *Arazoa definitzea.* Paragrafo bat egitea, taldeak ebatzi, ekoitzi, erantzun, probatu edo frogatu nahi duena argi eta garbi azaltzeko. Arazoaren definizioarekin batera, arazoaren ulermenarekin eta konponbidearekin lotutako lehen esplorazio-hipotesiak formulatuko dira.
- 6) *Helburuak/asmoak ezartzea.* Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozesua bideratuko duten ikasketa ildoakzehaztea.

LANERAKO PLANA

- 7) *Lanerako plana diseinatzea*. Adierazitako helburuak/asmoak abiapuntutzat hartuta, banaka, binaka edo taldean gauzatu beharreko ekintzak zehaztuko dituen lanerako plan bat diseinatzea, helburu gisa aurrez identifikatutako ikasketa beharrak asetzea izangoduena.

IKASKETA AUTONOMOA (*Informazioa lortzea, ikastea, modu kooperatiboan ikasteko partekatzea*)

- 8) *Informazioa biltzea*. Taldeak, planari jarraituz, iturri egoki guztietan informazioa bilatuko du (irakasgaiei buruzko dokumentazioa, datu-baseak –dialnet, <http://dialnet.unirioja.es/>; scholar, <http://scholar.google.es/>–, elkarriketen bidezko landa lana, eragina jasan duten erakundeen web orrialdeak, legeria, etab.), ikasketa prozesua osatzen duten ildoak garatzeko eta arazoa konpontzeko.
- 9) *Denen artean txosten bat egitea*. Honako atal hauek barne hartuko dituen txosten bat idatzi beharko dute:

1. Sarrera

2. Arazoa konpontzeko jarraitutako prozesua:

2.1. Konponbidea azaltzea

2.2. Konponbidea justifikatzea:

2.2.1. Sortutako eta baztertutako hipotesiak, eta horretarako arrazoiak

2.2.2. Aukeratutako hipotesia(k) eta aukeraketaren argudioak

2.2.3. Kontsultatutako iturriak

2.2.4. Proposatutako konponbidearen mugak

3. Ikasitako alderdi teorikoak

4. Ateratako ondorioak (gomendioak, inferentziak, iragarpenak, etab.)

5. Ebaluazioa: Egindako lana eta jarraitutako prozesua (banakakoa eta taldekakoa) aztertzea, erreferentzia gisa adostutako ebaluazio adierazleak hartuta, eta indar guneak eta hobetu beharreko alderdiak azaleratuz.

6. Erreferentziadun bibliografia eta web-grafia

7. Eranskinak:

7.1. Gauzatutako lanerako plana

7.2. Gauzatutako prozesu osoaren aktak

Txostena aurkezteko baldintzak: dokumentua eta aurkibidea orrialdeak zehaztuta; letra mota: Times New Roman (12 p.), Arial (11 p.) edo EHUSerif (11 p.).

LABURPENA (*Emaitzak idatziz eta ahoz aurkeztea*)

- 10) *Txostena ahoz (eta idatziz) aurkeztea*. Garatutako prozesua eta arazoari emandako konponbidea txosten batean berreraikitzea, eta txostena mintegian ahoz aurkeztea. Txosten honek fase guztietan gertatutakoa bildu behar du eta hartutako erabakiak argudiatu behar ditu. Aurkezpena egiteko hainbat baliabide erabil daitezke (IKTak, bestelako hainbat teknika, etab.), eta ezarritako denbora errespetatu beharko da.

11) *Metakognizioa eta ezagutzaren transferentzia*.

1. Gure ikasteko modua zein den ezagutzea, prozesu osoan erabilitako ikasketa estrategiak adieraziz.

2. Ikasitako printzipioak, teoriak, estrategiak, etab. zehaztea.
3. Ikasitakoa beste egoera profesional batzuetan erabiltzea.

MDJren kronograma

Kronograma zehatza moduluaren hasieran aurkeztuko da, eta modulua koordinatzen duen pertsonaren moodle – asignatura plataformara igoko da. Jarraitutako prozesua honako hau izango da:

ASTEA	ZEREGIN PRESENTZIALAK	ZEREGIN EZ PRESENTZIALAK	BIDALKETAK
16. astea	MDJ aurkezpena Arazoaren analisia	1-7 puntuak	
17. astea		1-7 puntuak	
18. astea	MDJ jarraipena	Informazioa biltzea, eztabaidatzea eta hipotesiak berriz lantzea	
19. astea		Informazioa biltzea, eztabaidatzea eta hipotesiak berriz lantzea	
20. astea		Informazioa biltzea, eztabaidatzea eta hipotesiak berriz lantzea	
21. astea	MDJ jarraipena	Txostena egiten hasia	
22. astea		Txostena egiten hasia	
23. astea	MDJ jarraipena	Txostena garatu	
24. astea		Txostenaren behin- behineko bertsioa amaitzea	Behin-behineko txostena
25. astea			
26. astea			
27. astea	MDJ jarraipena - Feedback	Amaierako txostena eta ahozko aurkezpena prestatzea	
28. astea		Amaierako txostena eta ahozko aurkezpena prestatzea	
29. astea	Presentación oral del informe	Behin betiko txostena bukatu	Behin betiko txostena
30. astea			

MDJren Ebaluazioa (prozesua, adierazleak, irizpideak eta nota)

Gaitasunen bidezko irakaskuntza-ikasketa planteamenduan, beharrezkoa da gogoraraztea gaitasunen balorazioa eta lan baten menperatze mailaren adierazleen balorazioa ezin direla modu independentean egin. Izan ere, gaitasun kontzeptua modu integratuan ulertzen dugu: gaitasuna zeregin konplexu bat konpontzeko prozesua da. Beraz, ez ditugu gaitasunak ebaluatu behar, ikasketa prozesuaren

kalitatea eta ikasleek (taldeek) egoera edo arazo bat konpontzeko egindako produktuaren kalitatea baizik. Horretarako, informazio hori biltzea ahalbidetzen duten adierazleak erabiliko ditugu, ondoren horiek egiaztatzeko eta baloratzeko.

Azken finean, ebaluazioak **prestakuntzaren zati** izan behar duela uste dugu. Prozesuan zehar, bai ikasleek bai irakasleek (lankidetzan jardunez) adierazleak eta ebidentziak erabiliko dituzte lana nola gauzatu ikusteko. Era berean, ikasketen ahulguneak zehazteko eta horiek gainditzeko egin beharreko hausnarketa ezartzeko informazioa eskuratuko dugu. Modu horretan, ikasketak, ditugun zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak aztertuta, ikasketa prozesua indartuko dugu eta prestakuntza prozesu honetan funtsezkoak diren hainbat alderdi hautemango ditugu (horietako batzuk aurreikusi gabekoak).

Beraz, garrantzitsua da eskuratu nahi ditugun gaitasunen eta ikasketa emaitzen ebaluazio adierazleak denen artean lantzea. Hain zuzen ere, moduluko lehen asteko lan saio bat horretarako erabiliko dugu.

Horrela, MDJra dedikaturiko saioek duten egitura bereziari esker, ekintza-planaren diseinuaren eta arazoaren aurreko emaitzen aurkezpenaren artean, prozesuaren berrikuspena eta analisisa egin daiteke, ikasketa hobetze aldera. Horri esker, heziketa-prozesuaren jarraipena egin daiteke, informazio baliagarria bildu eta irakaskuntza-ikasketa prozesua berriz bideratu ahal izateko.

Hauek izango dira ebaluaziorako irizpide eta adierazleak:

<p>Idatzizko txostenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Diziplina ezberdinetako informazio garrantzitsua jasotzen du. · Idatzitako baieztapenak esparru teorikoetatik oinarritzen ditu · Ideien koherentzia eta kohesioa du. · Argi eta modu originalean ordenatzen eta azaltzen ditu kontzeptuen eta alderdi nagusien arteko harremanak, funtsezko arazoak egituratuz eta dokumentatuz. · Txostena egokia aurkezten da (aurkibidea, sarrera, garapena eta ondorioak). · Ondorio propioak eta originalak ateratzen ditu, eta irakurleari begien bistakoa baino harago doan informazioa ematen dio. · Idatzizko hizkera formala zuzen erabiltzen du. · Bibliografia eta aipuak egiteko orduan sistema estandarizatuak erabiltzen ditu (APA / ISO).
<p>Ahozko aurkezpena</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Gaia ulertzeko behar den informazioa ematen du, funtsezko alderdiak jasota. · Ahozko azalpenetarako ematen diren denborak errespetatzen ditu. · Azalpena egiten duenean, modu logikoan egituratzen eta ordenatzen ditu ideiak. · Baliabide didaktikoak erabiltzen ditu azalpenean. · Azalpenean erabiltzen duen hizkera ez da sexista. · Publikoaren arreta mantentzen du. · Ahozko erregistro egokia erabiltzen du, ahots-tonu eta ahoskera ulergarriaz eta argiaz. · Adierazkorra da, berezkoa, argia, eta gorputz-adierazpena baliatzen du. · Erantzun zehatzak ematen dizkie ikaskideek edo irakasleek egindako galderei. · Enpatiaz entzuten ditu pertsonen egindako ekarpenak. · Bere hitz egiteko modua publiko eta egoera ezberdinei egokitzen daki.

Behaketa eta gidak edo txantiloiak, ikasgelako talde-lanari eta parte-hartzeari buruzkoak

Ikasgelan-taldean parte hartzea	Talde lana
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Agindutako zereginak betetzen ditu esandako denboran. <input type="checkbox"/> Motibazioa erakusten du. <input type="checkbox"/> Inplikazio nabaria erakusten du irakasgaietan. <input type="checkbox"/> Ikasgelako taldearekin partekatzen ditu bere galderak. <input type="checkbox"/> Elkarrizketa sustatu eta besteen parte-hartzea errazten du. <input type="checkbox"/> Modu aktiboan parte hartzen du lantaldearen elkarguneetan, eta informazioa, ezagutza eta esperientziak partekatzen ditu. <input type="checkbox"/> Errutinazko jarrerak baztertu eta berritzaile izaten saiatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ideiak eman eta taldekideekin elkarlanean jarduten du. <input type="checkbox"/> Ekimena eta lanerako sena ditu. <input type="checkbox"/> Elkarlanean planifikatzen eta antolatzen ditu zereginak taldearen baitan. <input type="checkbox"/> Denbora egoki kudeatzen du. <input type="checkbox"/> Ardurak bere gain hartu eta bere lana koordinatzen daki. <input type="checkbox"/> Taldearen saioetara joaten da. <input type="checkbox"/> Lana eginda ekartzen du. <input type="checkbox"/> Zenbait egoeratan sortutako gatazkak landu eta erabaki etikoak hartzen ditu. <input type="checkbox"/> Informazio-iturri egokiak erabiltzen ditu. <input type="checkbox"/> Bere jakintzatik eta esperientziatik ekarpena egiten dio talde-lanari. <input type="checkbox"/> Garrantziko galderak egiten ditu, ekimenez eta jakingura zientifikoz. <input type="checkbox"/> Feedback eraikitzailea emateko eta hartzeko gaitasuna du eta elkarlana pizten laguntzen du; aintzat hartzen ditu ikaskideen ekarpenak.

Erabiliko ditugun tresnak: Arazoari buruzko txostena, autoebaluazio eta elkarren arteko ebaluazio txostena, Ahozko aurkezpena, Behaketa-txantiloiak

Aurkezteko modua informarean eraketa prozesua biltzen den DOKUMENTU BAT IZANGO DA eta taldeko tutore bakoitzaren jarraibideen arabera aurkeztuko da. Eranskinak zenbatu gabe dokumentu honek 6000 eta 6500 hitz bitartean izango du. Dokumentuak honako atalak izango ditu:

1. Talde-lanaren aurkezpena (taldea osatzen duten pertsonen aurkezpena eta hauen abiapuntua edo kokapena moduluaren konpetentziekiko)
2. Arazoaren azken txostena, gida honetan azaldutako urratsak jarraituz. Ikasle bakoitzaren autoebaluazioa
3. Elkarren arteko ebaluazioa (Taldearen lan dinamika, gaitasunak, hobetu beharreko aspektuak, hobetzeko elkarren artean trukatu beharreko ezagutzak etab)
4. Ahozko aurkezpena prestatu eta ebaluatzea.

ERANSKINAK:

- a) Lanaren prozesua islatzen duten aktak (ereduaren arabera).
- b) Arazoa ebazteko erabilitako materiala eta dokumentazioa.

Karpeta honen entrega-data lauhilekoko 29. astean zehar egingo da (MDJ talde bakoitzeko tutoreekin zehaztera)

Plagioa

Ezin da beste norbaitek egindako lana, edo horren kopia edo imitazioa, norberarena izango balitz bezala aurkeztu. Ikasleak aipua egiteko arauak ezagutu eta erabili behar dituzte. Plagioaren susmoak txostena ez onartzea suposa dezake, eta beraz, MDJ ez gaituzte.

Nota jartzeko sistema

Taldeko irakasle tutorearen ardura izango da MDJrinojartzea; denaden, moduluko gainerako irakasleekin kontsultatu ahal izango du. Nahitaezkoa da MDJ egitea irakasgaien nota jasotzeko. Gidan zehaztutako urratsak errespetatzen dituzten MDJk bakarrik hartuko dira onartat.

MDJk gehienez 1,5eko nota jasoko du. Nota hori irakasgaietan lortutakoei gehituko zaie.

Idatzizko zein ahozko gaitasuna garatzeko, egitura gramatikal okerra edo akats ortografiko larriak dituzten lanak bueltatuak izango dira zuzentzeko eta kasu bakoitzari egokitutako neurriak hartuko dira.

Moduluko Diziplinarteko jarduera (MDJ) egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute Moduluko Diziplinarteko Jarduera (MDJ) egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Graduko ikasleek MDJ egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko hiru irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute egin beharrik izango.
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten MDJ egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute MDJ.
4. MDJ egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, MDJren % 15 aplikatu gabe.

MDJren ebaluazio jarraituari uko egitea

MDJren ebaluazio jarraituari uko egin beharko dion ikasleak moduloko lehenengo bi asteetan zehar koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko dio. Ikasle honek MDJ ebaluatzeko moduloko irakasle taldean adostutako banakako froga bat egin beharko du. Moduloko koordinatzaileak edo honek izendatutako irakasle batek froga honen ezaugarriak jakinaraziko dizkio.

IRAKASGAIEN ZERRENDIA: Bakoitzaren konpetentzia espezifikoak eta edukiak

Irakasgai bakoitzaren metodologia eta ebaluazioa zehatzak GAUREn argitaratutako irakasgaien gidetan kontsulta daitezke.

1. GIZA ESKUBIDEAK, GIZARTE ETA HEZKUNTZA POLITIKAK

Konpetentzia espezifikokoak

- Argudio hezitzaileak eraiki Giza Eskubideen jaiotza, garapena eta sustapena azaltzen duten printzipioetan oinarrituz.
- Giza Eskubideak babesten edo urratzen diren egoerak, eskubideen arteko gatazkak edo dilemak identifikatu eta erantzun etikoak eraiki, gizarte hezitzailearen rol profesionaletik.
- Idatzizko dokumentuak eraiki eta ahozko komunikazioak sortu, zuzenketa akademikoarekin.
- Prozesu komunikatiboetan parte hartu, zeinetan ezagutzak eta esperientziak konpartitzen diren, ezagutza globala eta kolektiboa lortzeko.

Gai zerrenda

1. Giza Eskubideen ibilbide historikoa	Giza Eskubideen kontzeptua. Jaiotza eta garapena historian zehar. Giza Eskubideen Belaunaldiak.
2. Giza Eskubideen Hitzarmenak eta Gutunak	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, Haurren Eskubideen Gutuna...
3. Giza eskubideen babes juridikoa eta gizarte politikak	Giza Eskubideen Europako auzitegia. Gizarte politikak eskubideen babeserako (bizitza duinerako eskubidea, elikadura eta osasunerako eskubidea, mugikortasunerako eskubidea, adierazpen askatasuna, ingurumen osasuntsua izateko eskubidea, parte hartzerako eskubidea,...etab) Elkarte eta lurraldearteko erakundeak (NBE, Amnistia Internacional, Gurutze Gorria...)
4. Estatuaren betebeharrak eta mugak	Giza eskubideak bermatzeko betebeharra. Baliabide eta aukeren eskuragarritasunaren inguruko lana. Eskubideen babesa eta promozioa.
5. Hezkuntza eskubide gisa	Hezkuntza eskubideak praktikan. Bakearen kulturaren eta Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza. Hezkuntza inklusiboa, genero berdintasuna eta giza eskubideen errespetuan oinarrituta.

2. IDENTITATEA ETA GARAPEN PROFESIONALA

Konpetentzia espezifikokoak

- Gizarte hezitzaileen eta pedagogoen oinarrizko ezaugarriak eta esangurak zehaztea, gaur egungo hezkuntza profesioekin erlazionatuz.
- Hezkuntza burubideak ekoiztea, etika eta deontologia printzipioetan oinarriturik, giza eskubideei loturik, genero ikuspegi eta profesional ardura kontutan izanik.
- Publikoki eta ahoz, ideiak, argudioak, komunikatzea. Hezkuntza gaiak kudeatuz eta baliabide didaktikoak erabiliz.
- Idatzizko informeak lantzea, ongi argudiatuak eta eraturako irizpide formalak erabiliz.
- Proposatutako ariketei eta ikasketako eginkizunei, jarrera baikor bat erakutsi.

Gai zerrenda

1. Hezkuntza-lanbideak eta horien garapen historiko eta soziala	Hezitzailearen identitatea eraikuntza historiko eta sozial gisa. Hezkuntza-lanbideak gizarte modernoan. Hezkuntza-zerbitzuen eskaria egungo gizartean.
2. Hezkuntzako profesionalen ezaugarriak eta lanbide-eremuak	Hezkuntzako profesionalak: beste profesional batzuekin eta hezkuntzako lanbide ezberdinen artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak. Genero ikuspegia. Identitatea eraikitzea informazioaren gizartean. Hezkuntza-taldeak lanbidean jarduteko modu gisa. Hezitzaileek bere lana egiteko dituzten lanbide-eremuak.
3. Hezkuntzako profesionalen garapena eta gaurkotzea	Gogoeta-jarduera garapen profesionalerako estrategia gisa: bizitza profesionalan egindako ikasketa Bizitza profesionalaren plangintza.
4. Hezkuntzako profesionalak talde sozial gisa	Profesionalen elkarteak. Lanbide elkargoak. Lanbidearen lan-alderdiak. Etika eta deontologia profesionala. Erabiltzaileekin, lanbide-taldearekin eta beste profesional batzuekin gorde beharreko kode etikoak.
5. Hezitzailearen gaitasun profesionalak	Gaitasun emozionalak, plangintzarakoak, kudeaketa eta erakundeekiko harremanetarakoak, pertsona artekoak, aldaketa eta hobekuntzarakoak.

3. KOMUNIKAZIOA ETA HEZKUNTZA HARREMANA

Kompetentzia espezifikak

1. Balizko hezkuntza egoeretan gertatzen diren komunikazio elementu nagusiak identifikatzea.
2. Hezkuntza testuinguruetan komunikazioa errazten zein oztopatzen duten elementuak bereiztea.
3. Komunikazio testuinguru partekatuak eratzeko esku-hartze estrategiak sortzea.
4. Beste pertsonekin elkarrekintzan zein lantaldean aritzeko komunikazio trebetasunak garatzea.
5. Norbere argudioak eta ideiak justifikatzeko gai izatea elkarrekiko errespetuzko eremu batean.
6. Erlaziozko testuinguruak sortzea askotariko egoerahezigarrientzat.

Gai zerrenda

1 Hezkuntza harremana eta komunikazioa: Kontzeptuaren zentzua eta azalpena	- Gaur egungo gizarteetan eta erakunde-esparruetan hezkuntza harremana eta komunikazioa nola ulertzen den. Hurbilketa. - Komunikazioa gizarte-heziketako harremanen bitarteko eta helburu gisa: komunikazioa-informazioa, pertsona arteko, taldeko, erakundeetako eta komunitateko ikuspegia.
2. Harreman eta komunikazio prozesuak hezkuntza-testuinguruetan	- Harremana gizarte-heziketako esku-hartze testuinguru desberdinetan: hezitzaileen zentzua eta zeregina pertsonen, kolektiboen eta profesionalen interakzioan. - Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa. - Komunikazio-moldeak: - Entzutearen balioa hezkuntzan.

3. Lotura afektiboak ezartzea hezkuntza harreman eta komunikazioan	<ul style="list-style-type: none"> - Emozioa komunikazioan. - Elementu lagungarriak eta oztupoak komunikazio-prozesuetan. - Komunikazio-trebetasunak
4. Talde-lana hezkuntza-prozesuetan (hezkuntza-taldean partaide izatea)	<ul style="list-style-type: none"> - Rolaren, egituraren eta zereginaren zentzua talde-dinamiketan. - Lidergoa taldeetan. - Talde-dinamikak aztertzea eta ulertzea: ikusten duguna eta esaten duguna baino harago.
5. Komunikazio / harreman (zeharkakoa) teknikak, estrategiak eta trebetasunak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-komunikazioa/harremana aztertzeke eta hobetzeko teknikak eta trebetasun profesionalak.

4. HEZKUNTZAKO LEGERIA ETA NAZIOARTEKO IKUSPEGIA **Kompetentzia espezifikoak**

Hezkuntza sistema nazionalen eraketa aztertu, baita Hezkuntza eskubidearen gauzatzea eta Hezkuntzako Nazioarteko erakundeen lanak ere.

Gai zerrenda

1. Hezkuntzako legeriaren sarrera	Ongizate Estatu eta hezkuntza eskubidea. Hezkuntzako legeriaren oinarriak. Estatuaren eskubideak eta betebeharrak. Espainiako hezkuntza-legeria.
2. Nazioarteko hezkuntza-organismoak eta gobernu kanpoko Erakundeak.	UNESCO eta Nazioarteko Hezkuntza Bulegoa. UNICEF. OCDE. Hezkuntza arloan diharduten GKEak.
3. Hurrei buruzko nazioarteko itunak.	Haurren eskubideei buruzko adierazpena. Haurren eskubideei buruzko hitzarmena. Haurren egoera gauregungo Espainian.
4. Gizarte Hezkuntzaren lege-esparru orokorra.	Gizarte zerbitzuei buruzko legea. 64/2004 Dekretua, EAEko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrei buruzkoa.
5. Eremu eta kolektibo espezifikoari buruzko legeria.	Emakumea eta Familia. Adingabeak. Minusbalotasuna duten pertsonak. Adinekoak. Immigrazioa. Droga-mendekotasunak. Gizarte-bazterkeria.

5. PEDAGOGIA: TEORIA ETA HEZKUNTZA ERAKUNDEAK

Konpetentzia espezifikoak

- Teoria eta ikuskera epistemologiko desberdinetatik, hezkuntza-jarduerak oinarritzen dituzten teoria eta printzipioakaztertu.
- Gizarte hezitzaileen lan eremuak identifikatu eta hezkuntza ez-formaleko erakundeen hezkuntza proiektua aztertu.
- Hezkuntza eta gizarte eskuhartzeen zein hauen testuinguruen eraldaketarako aldaketak hartu behar duen norabidea adierazi hobekuntza proposamenak argudiatuz.
- Ezagutza eta esperientziak tartekatzen diren komunikazio prozesuetan era eraginkorrean parte hartu beti ere indibidualtasuna ekidiz eta ezagutza global eta kolektiboa sustatuz

Gai zerrenda

1. Hezkuntzaren kontzeptualizazioa	Gizartea eta hezkuntza: hezkuntza ahalmenak eta gabeziak. Hezkuntza kontzeptua. Hezkuntza jarduera eta bere agenteak. Hezkuntza formala, ez-formala eta informala.
2. Hezkuntza Teoria garaikideak	Hezkuntzaren teoriak. Eskola Berria, Deseskolaratzearen aldeko teoriak, Mugimendu alternatiboak, Pedagogia sozio-kritikoa.
3. Hezkuntza eskuhartzearen oinarriak	Hezkuntza-jardueraren teoria eta praktika. Ikuskera epistemologikoak: teknikoa, praktikoa eta sozio-kritikoa.
4. Erakunde sozioedukati- tibo ez formalak Euskal Herrian.	Hezkuntza ez-formalaren esku hartzearen eremuak eta bere hezkuntza eta gizarte proiektuen oinarriak.

WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK

Web Orriak

Modulu osoan zehar, honako web orrialde hauek erabil daitezke erreferentzia komun gisa.

Gizarte Hezkuntzaren ataria: <http://www.eduso.net>. Web orrialde hau oso interesgarria da, izan ere, gizarte hezkuntzari buruzko mota askotako informazioa barne hartzen du (1.700 esteka baino gehiago ditu). Gizarte hezitzaileen elkargoetako web orrialdeetarako eta RES aldizkarirako sarbidea eskaintzen du. Horrez gain, gizarte hezkuntzako dokumentu profesionalizatzaileak eskura daitezke bertan:

ASEDES eta Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusia. (2007). *Documentos profesionalizadores: Definición de Educación Social. Código deontológico del educador y educadora social. Catálogo de funciones y Competencias del educador y educadora social*. BARTZELONA: ASEDES.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa: <http://www.ceespv.org/web/index.php>

Alboan. <http://www.educacion.alboan.org/>. Garapenerako kooperazioa eta kultura artekotasuna. Material didaktikoak: Hezkuntzaren Munduko Foroa.

Alternatiba pedagogikoen Dokumentazio Zentroa.

<http://www.nodo50.org/cdc/cedap/CEDAP.htm>

Amnistia Internazionala: <http://www.es.amnesty.org/index.php>. Kataluniako Amnistia Internazionalaren web orrialdea, giza eskubideen historia eta bestelako dokumentu, proposamen, definizio, etab. oso interesgarriak barne hartzen dituena (<http://www.amnistiacatalunya.org/edu/es/historia/index.html>).

Animazio soziokulturaleko sare iberoamerikarra. <http://rianimacion.org> Helbide honetatik arlo horretan lan egiten duten ehun bat erakunde eta organismotarako sarbide izango duzue; baita sarean dauden aldizkarietara ere,

Ararteko: www.ararteko.net . Txostenak, dokumentuak, artikuluak, , pertsonen eskubidei buruzko eremua, baztertzearren arriskuan dauden kolektiboak, etabar jasotzen ditu.

Asociación Enseñantes con gitanos: <http://www.pangea.org/aecgit/>

Baliabide Dokumental eta Informatikoen Zentroa (CREDI). <http://www.campus-oei.org/formcredi.htm>

Bartolomé de las Casas Giza eskubideen Erakundea. Universidad Carlos III: http://www.uc3m.es/portal/page/portal/instituto_derechos_humanos

Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net

Datu baseak: [Scopus](#); [ERIC](#); [Journal Citation Reports \(Web of Knowledge\)](#); [Web of Science \(Web of Knowledge\)](#)

Eduso: Gizarte hezkuntzako ataria www.eduso.net

Emakunde. <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-home/es/>. Instituto Vasco de la mujer. Enlaces a programas de coeducación, prevención de violencia de género, sensibilización social... Enlace con Berdingune (Gizonduz) y Defentsoria.

Estatuko Aldizkari Ofiziala: www.boe.es.

Eudel. (Berdinsarea). <http://www.eudel.net/aNG/web/cas/redes/berdinsarea.jsp>. Euskal Udalerrien Berdintasun Arloa. Protokoloak eta Berdintasun Planak. Beldur Barik Programarako sarbidea (gazteen arteko berdintasuna sustatzea) <http://www.beldurbarik.org>

Eusko Jaurlaritzaren Erakunde eta Gizarte Zerbitzuen Zentroen direktorioa. www.direktorioa.net

Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza ataria (Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Saila. www.gizartelan.ejgv.euskadi.net

Gizarte Hezkuntzaren Bloga. <http://www.educablog.es/category/diario-de-un-educador/>

Gizarte-ekintzara aplikatutako Etikaren Behatokia -www.etica.campusarnau.org

Hezitzaile latinoamerikarren sarea: 200 herrialde desberdin baino gehiagoz osatuta, eta esperientziak partekatu eta trukatzeko helburuarekin.

<http://www.edusol.info/es/bitacora/irisfz/red-educadores-latinoamericanos-200-integrantes>

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa: <http://www.mec.es>

Hezkuntza ez formalaren Komunitatea:

<http://educalia.educared.net/edujsp/home.jsp?idioma=es>

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Estatu Iberoamerikarren Erakundea.

<http://oei.es>.

Ikaskuntza komunitateak: http://www.utopiadream.info/red/tiki-index.php?page_ref_id=26

INNOVA proiektua. Hezitzaileen ataria. Hezkuntza arloko berrikuntza: www.innova.usal.es

MUGAK, centro de Estudios y Documentación sobre racismo y xenofobia de SOS Racismo/SOS Arrazakeria <http://www.mugak.eu/gunea/mujer/asilo/1951>. Muy interesante el **mapa** de la web con muy diferentes recursos, enlaces, audiovisuales, propuestas de debate,... <http://www.mugak.eu/mugak/site-map>

Nazioarteko zuzenbidea (giza eskubideei buruz) en materia de DDHH

<http://www.derechos.org/nizkor/ley/> Referencias y enlaces a todo tipo de tribunales, instancias,... <http://www.derechos.net/links/esp/ley/> ,

<http://www.derechos.org/index/esp.html>

OEIren liburutegia digitala. <http://www.oei.es/bibliotecadigital.htm>

Pere Tarrés Fundazioa. <http://www.peretarres.org/>Orrihonetanaldizkarietaargitalpenak ikusi ahal izango dituzue, gaztelaniaz eta katalanez.

Red iberoamericana de animación sociocultural. <http://rianimacion.org> Desde esta dirección podéis acceder a cerca de cien entidades y organismos que trabajan en este campo; también a las revistas de la red,

Ruy López Fundazioa: <http://www.fundacionruylopez.org/>

SUSMOA Federazioa (Bilboko Garapen Komunitarioa): <http://susmoa.wordpress.com/>.
Osatzen duten lau erakundeetarako sarbidea.

Unesco : <http://www.unesco.org/new/es/unesco/> . Unesco eta Hezkuntzaren araudirako tresnak: <http://www.unesco.org/new/es/education/standards-and-norms/>

Unicef: www.unicef.es

Aldizkariak

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">▪ ANIMADOR SOCIOCULTURAL: REVISTA LATINOAMERICANA: http://www.lazer.eefd.ufrj.br/animadorsocio-cultural/• AULA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA. http://aula.grao.com/revistas/presentacion.asp?ID=3• BOLETÍN DE INVESTIGACIÓN-ACCIÓN. http://www.peretarres.org/investigacionaccion/index.html.• BORDON. Revista de la Sociedad Española de Pedagogía.▪ COMUNICAR. Version on line, y digital. http://www.revistacomunicar.com/▪ COMUNICACIÓN Y EDUCACIÓN▪ COMUNICACIÓN Y PEDAGOGÍA. Barcelona□ CONTEXTOS EDUCATIVOS, http://www.unirioja.es/servicios/sp/ej/contextos/contextos.shtml• CUADERNOS DE PEDAGOGÍA: http://www.cuadernosdepedagogia.com/• CULTURA Y EDUCACIÓN. http://www.fia.es/online/revistas_home.php□ EL CORREO DE LA UNESCO.• HIK HASI hezkuntza aldizkaria. Revista de enseñanza Vasca. www.hikhasi.com• HIPATIAPRESS. Revistas internacionales de investigación de ciencias sociales y de la educación. http://www.hipatiapress/hpjournals□ INFANCIA Y APRENDIZAJE: http://www.fia.es/online/framehomepage.php• MONITOR EDUCACIÓN. http://www.monitoreducador.org/.▪ PEDAGOGÍA SOCIAL. http://www.uned.es/pedagogiasocial.revistainteruniversitaria/▪ PROFESORADO. REVISTA DE CURRÍCULO Y FORMACIÓN DE PROFESORADO. http://www.ugr.es/local/recfpro.□ QURRICULUM. http://webpages.ull.es/users/revistaq/.
Documentos en: http://www.quadernsdigitals.net/index.php? | <ul style="list-style-type: none">▪ RES. Revista de Educación Social. http://www.eduso.net/res/▪ REVISTA DE EDUCACIÓN, http://www.revistaeducacion.mec.es/▪ REVISTA ELECTRÓNICA SOBRE DERECHOS HUMANOS Y DERECHO HUMANITARIO. http://www.derechos.org/koaga/▪ REVISTA IBEROAMERICANA DE EDUCACIÓN. http://www.rieoei.org/▪ REVISTA IBEROAMERICANA DE EDUCACIÓN. Versión digital e impresa; http://www.rieoei.org▪ REVISTA IBEROAMERICANA DE EVALUACIÓN EDUCATIVA. http://www.rinace.net/riee/▪ REVISTA INTERUNIVERSITARIA DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO. Tiene versión impresa y versión digital. http://aufop.com/aufop/revistas/lista▪ REVISTA INTERUNIVERSITARIA DE TEORÍA DE LA EDUCACIÓN. Universidad de Salamanca• REVISTA DE EDUCACIÓN SOCIAL. http://www.peretarres.org/revistaeducacion-social/.• REVISTA EDUCACIÓNXX1. http://www.uned.es/educacionXX1/• REVUE GENERALE DE DROIT INTERNATIONAL PUBLIQUE. http://www.rgdip.com/• REVISTA ESPAÑOLA DE DERECHO INTERNACIONAL. www.aepdiri.org/.../redi-informacion.php• REVISTA ELECTRÓNICA DE HUMANIDADES, EDUCACIÓN Y COMUNICACIÓN SOCIAL. http://www.publicaciones.urbe.edu/index.php/REDHECS• REVISTA MEDITERRÁNEA DE COMUNICACIÓN SOCIAL. http://www.rmedcom.org/• REMIE. Revista Multidisciplinar de Investigación Educativa. http://remie.hipatiapress.com. |
|--|--|

accionMenu=hemeroteca.VisualizaNumeroRevistaIU.visualiza

- RED DIGITAL: revista de Tecnologías de la Información y Comunicación Educativas. <http://reddigital.cnice.mec.es/6/Portada/portada.php>
- REME (Revista electrónica de Motivación y emoción). <http://reme.uji.es/>

- RIE, Revista de investigación educativa. <http://www.um.es/depmede/RIE/>
- TANTAK. Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria. <http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-home/es>
- TRABAJO SOCIAL GLOBAL. www.tsghipatiaeditorial.com
- UZTARO aldizkaria. Bilbo

Sumarios de la revista Derechos Y Libertades del Instituto de DDHH Bartolomé De las Casas
<http://turan.uc3m.es/uc3m/inst/BC/dpbcco2.html>

Hemeroteca virtual de sumarios de revistas científicas: <http://dialnet.unirioja.es>

Portal de revistas:

http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.ArticuloIU.getListas&filtro_categorias=6